

DESIO GOZO-GAZIAK

Aintzane Usandizaga, 14 urte

Lasarte-Oria

– Arranzalea amatxo, arrantzale izanen naiz.

Katixak irribarre samurrez begiratu zion semea-ri. Bost urte labur besterik ez zuen, eta eskuak gerrian, ahots irmoz bere bokazioaren berri eman zion serio-serio.

– Jakina ene seme, hori da erabakirik burutsue-na arrantzale herri batean -barre egin zuen leunki-eta espero dut egunero-egunero zu izanen zarela arrain-sarda handiena ekartzen duena!

– Ezinen dut halakorik egin baina! –jakinarazi zion semeak begi ameslariz– itsasoan barrena ibiliko bainaiz beti, etxera lantzean behin soilik azalduz.

Amari irribarrea hoztu zitzaion. Senar galduaren irudia azaldu zitzaion gogora, senar sendo bezain gozo hura. Zeharo maitemindurik ezkondu ziren biak, eta hasieran desio betez itxaroten zien bere egonaldi luzei. Itxaroteak, baina, hilabete izatetik urte izatera iritsi ziren, eta bakarkako egonaldiak etsipenaren mugan zeuden. Peioren etorrerarekin bakardadea samurragoa bihurtu zenean, ez zuen

senarra gehiago itxaron beharrik izan, uhinek betirako ostu baitzioten.

– Zer deritzozu, amatxo? -galdetu zuen Peiok, semeak, bere pentsamenduak etenez.

Begien aurrean zuen haurrari erreparatu zion berriro ere. Zer dela eta kezkatzen zen hainbeste? Peio mutikoa zen oraindik, gauza arrunta zen halako ametsak izatea eta ez zegoen zertan kezkatu.

– Denborak esanen du, ene mutila, denborak esanen du.

Denborak aurrera egin zuen alabaina, astiro baina seguru. Hamar bider jantzi eta erantzi zituzten euren hostoak zuhaitzek, eta zimurrak areagotu egin ziren Katixaren azalean, bere kezken gisara.

– Ama -esan zion Peiok neguko goiz heze batean-zurekin hitz egin beharrean naiz.

Arrainak xerratan ebakitzen ari zen Katixak aiztoaz eskua moztu zuen ezusteak asalaturik.

– Jada hamabost urte ditut, -jarraitu zuen gazteak amaren esku zauritua oihal zahar batez biltzen zuen bitartean- gizondu naiz dagoeneko. Badut serioski lanean hasteko garaia eta hartua dut erabakia.

Amak eskua bereizi zuen semearenengandik.

– Ohartu naiz bai -esan zion ahots sakonez- herriko neskatxei begiratu beharrean uhinei begira geratzen zinenean konturatu nintzen itsasoa maite zenuela. Begi ameslariz ortziari so orduak eta orduak ematen zenituenean, ziur jakin nuen ene altzotik ostua izanen zinela. Behin eta berriro erre-gutu diot itsasoari igortzen dizun deia eten dezan,

bere gesalaz zu tentatzeari utz diezaion, baina alferrik; oraingoan ere alferrik. Haren dirdira berdina duzu ninien sakonean, haren zurrunbilo berbera belarrietan, haren desio gazi-gozo gisakoa erraie-tan. Ezerk ez zaitu lotzen lehorrera, ezta nik ere, eta ezbairik gabe utziko nauzu; berak bezala.

Peio samindurik utzi zuten haren ama maitearen hitzek. Begiak hezetasunez itorik, amarengana makurtu zen masailean musu emateko asmoz. Katixak, ordea, zakarki alderatu zuen burua seme-aren nahia eragotziz.

Aste betera itsasoratu zen Peio. Brankan eserita zegoela agurra zuen buruan. Amak ez zion aurpe-gira begiratu ere egin.

– Oker zaude, ene ama maitea, –esan zion muti-lak supituki– itasoarekiko dudan maitasuna bezain handia da lehorrera lotzen nauen gauza bakarra etetearen mina, zure ondoan ez egotearen mina, zure magala lagatzearen mina.

Katixak ez zuen malko bakar bat ere isuri, eta aurpegia ere zurrun mantendu zuen. Baina bere semeak ondoegi ezagutzen zuen bere ezpain estu-tuetan eta ukabil itxietan ez erreparatzeko.

Itsasoari begira jarri zen. Eguzki errainuz zipriz-tindutako ur gardenari so jartzen zen oro, zorion-tasun mugagabeen murgiltzen zen, guztia ahaztuz. Maitañoari begietara begiratzean gauza berbera sentitzen zela esan ohi zion Xiprik, bere lagun minak. Irribarre egin zuen bere adiskide aldrebesa oroitzuz.

– Itsasontzi kanpotar bat heldu omen dun portura.

Mariñek ez zion jaramon handiegirik egin bere bizilagunaren berriari. Bestelako kontuak zerabil-tzan buruan. Hogei urte zituen jada eta ezkondu egin beharra zuen. Bere adineko neska gehienek bazeramatzaten pare bat urte ezkondata. Mariñek ez zuen inongo presarik, ezta gogorik ere, bai ordea bere amak.

Eginbeharrak amaitu zituenean, hondartzara joan zen, itsasoak ideiak argitzen lagunduko ziolakoan edo. Itsasertzean ibiltzen hasi zen, olatuek oinak mihazkatzen zizkioten bitartean pentsatuz eta pentsatuz.

– Egunon -diosala egin zion norbaitek eta ia tupust egin zuen berarekin- herrikoa zara, ezta?

Bizkar zabaleko gizon garaia zuen begien aurrean. Eskuko eta aurpegiko azala beltzarana eta laz-tua zuen, arrantzalea izango zen ziurrenik. Aurpegikera gogorrekoa zen, okotz tente eta sudur zorrotzekoa. Gaztea zela begi bistan zegoen arren, bere begi argien sakontasuna txundigarria zen, ehundaka urtetan bildutako jakinduria gordeko balute bezala.

– Agian jakinen duzu ene ama non bizi den –jarraitu zuen– Katixa ezagutzen al duzu?

Ezin zitekeen! Katixa al zen bere ama? Urteak eta urteak inorekin hitz egin gabe igaro zituen atso ero hura? Oroitzen zuen haren hiletan norbaitek

semeak eta senarrak utzi zutelako erotu zela, edo erotua zegoelako utzi zuten? Berdin zion, berak ez zien inoiz txutxumutxuei jaramonik egiten.

– Bai... beno... -hasi zen eztarria korapilatuta zuelarik- sentitzen dut baina aurreko hilabetean ehortzi genuen.

Momentu batzuk lehenago hain gogorra zirudien gizona belauniko erori zen hondarretan, eta eskuez aurpegia ezkutatzuz negarrari ekin zion. Haurtxo baten minak hunkitzen gaituen moduan hunkitu zuen Mariñe haren negarrak. Begiak lausotu zitzaizkion eta berak, gizonezkoekin hitz egi-tera ere ausartzen ez zenak, besoetan estutu zuen samurkiro. Beren malkoak nahasten ziren bitartean, bazirudien betidanik ezagutzen zutela elkar, eta orduan ohartu zen Mariñe zenbateraino erakartzen zuen mutil hark.

* * *

– Ez dakik nola poztu nindun hire etorrerarekin, txo –zioen Xiprik herriko tabernako zurezko mahaian eserita zeudelarik–. Benetan gogoia nian hirekin lehengo moduan egoteko, luzarorako izan den jakin ez arren...

Peiok lagunari begiratzen zion. Irribarretsu ageri zen, zoriontsu bere bizitzan, emakume langile baten senarra eta hiru seme-alabaren aita zelarik.

– Uste diat nire itsasuntziaren bidaiak amaitu dituala.

Xipriren garagardo-edalontzia erdibidean gelditu zen.

– Zer diok baina?

– Aditu duana, -erantzun zion Peiok hasperen sakon baten ostean-. Ezkondu eginen nauk eta bertan familia osatu.

– Hara! Hara! -egin zuen barre Xiprik- Mariñek txora-txora eginda hauka antza denez! Hiri katea motzean lotu beharra zegok itsasoari uko egiteko; esadak niri...

Peio pentsakor geratu zen. Neska zentzudun eta gogorra zen Mariñe, baina samurra eta sentibera aldi berean. Asko lagundu zion, ezin zuen uka, eta bere begiak! Gaztaina koloreko begi zoragarri horiek... dir-dirka egon ohi ziren beti, bazirudien niniekin egiten zuela irribarre ezpaineekin beharrean. Bai, atsegin zuen Mariñe, baina nahita ere ezin zuen esan maite zuela, oraindik ez bederen. Ez zuen itsasoak betetzen zuen moduan betetzen, eta ez, ez zen bera lehorrean gelditzera bultzatzen zuen arrazoia.

– Berari zor zioat Xipri, -esan zuen ahots dardartiz, begirada galduaz- ene ama maiteari zor zioat.

Momentu berean Mariñe etxean zen berria ematen. Bere ama pozez zorutzen zegoen eta lasterka abiatu zen bizilagunei kontatzera. Sutondoan eserita zegoen amonak, berriz, ez zuen deus esan.

– Eta zuk zer diozu, ene amona maitea?

Tximiniako errautsetik begirada altxa eta bera gan finkatu zuen. Begi gris dizdiratsu haiekin bere barrena behatzen zuela zirudien.

– Ziur al hago eginen dunanaz? -galde egin zion kezka-arrastoak zituen ahots samurrez- herrira iri-

tsi berria dun, eta ez zakinagu ezer zehatzik berari buruz. Baina, nik dakidan urria egiatik hurbil baldin bazagon...

– Baina hain era ederrean gertatu da dena... Ai! –egin zuen hasperen Mariñek– itsasoak berak ekarri didala esan liteke. Zergatik egin uko halako opariari?

– Horrexegatik laztana, horrexegatik –erantzun zion amonak burua leunki astinduz– “Urak daka-rrena, urak daroa”.

Mariñek maitasunez besarkatu zuen amona, azaltzen zizkion kezka eta oztopo guztiak bere ondotik aldentzera zihoalako zirelakoan.

* * *

– Kito! Kitatua zegok zorra! Egia esan, ezin diat asko eman traste zahar honengatik.

Peio hutsari begira zegoen, txapon gutxi batzuk zituen larruzko zakutxoak esku luzatuan zuelarik, buruan ideiak borborka.

Bi urte zeramatzan Mariñerekin ezkondurik, bi urte luze bere ustetan. Hasieran dena polita izan zen, lehenengo gauean. Biak bakarrik euren loge-lan gelditu zirenean, pasioak txinpartak ateratzen zituen. Mariñeren zapia leunki burutik kendu eta bere adats ilunen lurrinean korapilatu zenean, itsasoaren gesala ahaztuko zuela iruditu zitzaion; bere begietan murgiltzeak ur zabalean galtzeko desira estaliko zuela, baina ez zen hala izan. Gau bakarra iraun zuen horrek, ez baitzuen ezer berririk aurkitzen Mariñerengan. Egunero berberak ziren bere ile eta begiak, ahots eta begiradak.

Peiok ez zuen gizaki artean bizi nahi, aspertu egiten zen, ito. Berak ur amaigabez inguraturik bizi nahi zuen, itsasoak eskaintzen zion oro dastatuz eta gozatuz. Baina ezinezkoan zen, ezinezkoa. Bere amari zor zion eta horrexegatik saldu zuen bere itsasuntzi kutuna, tentaziorik ez izateko.

Baina itsasoaren deia gero eta ozenagoa zen, eta gero eta jasangaitzagoa berau saihestea. Indar guztiak behar zituen haren hitzari eusteko eta ez zuen beste ezertan erreparatzen.

Gaizki sentitzen zen Mariñe sofriarazten zuelako, baita Katixa txikiari ia jaramonik egiten ez ziolako ere. Bere amaren gisa hots egin zioten lehenengo gau haren fruituari. Lehen gau harena izan behar zuen zinez, orduz geroztik ez baitzuten inongo harremanik izan.

Portuan zen Mariñe, hondartzako arrokei begira. Bertan eserita zegoen Peio, bere kainabera zaharrarekin, azken sei urteotan egiten zuen moduan. Orduak eta orduak ematen zituen horrela, itsasoari begira, eskaintzen zion guztia jaso ezin zuelako noizbehinka malko gazi bat masailatik behera irristatzen zitzaizolarik.

Hasieran Mariñek ez zuen senarraren jokabidea ulertzen, baina orain, erdizka bazen ere, lortu zuen. Ulertzen zuen behintzat berarentzat itsasoa ezinezko maitasun baten gisakoa zela, biziki maite zuena eskuratzea ere espero gabe. Azken finean, bere egoera ere antzerakoa zen, berak ere ikaragarri maite baitzuen Peio eta bere teilatupean, bere alboan bizi zen arren, gero eta urrutiago sentitzen

zuen. Azken urteotan, baina, maitemin horri beste sentimendu bat gehitu zitzaion: gorrotoa. Eta horrexegatik gorrotatzen zuen, gertatuak gertatu arren, lehengo grinaz maitatzen jarraitzen zuelako.

Hala ere, Peio ez zen lehengoa. Bere begiek ez zuten hasiera bateko jakinduria isladatzen, egia esan, ez zuten ezer adierazten, hutsa soilik. Orduan hasi zen Mariñe ohartzten lehen Peioren begiek erakusten zutena itsasoak eskainia zela, eta benetan zentzugabea zirudien arren, Peio itsasoa-
ren beraren zati zela.

– Amatxo, –ahots dardarti batek bere pentsamenduak eten zituen, Katixa zan–. Amonatxoa... amonatxoa joan egin da.

Etxera sartu zenean, Peiok, ohean etzanda, negarrez aurkitu zuen Mariñe. Tabernan entzun zuen berria eta lasterka hurbildu zen etxerantz. Bazekien Mariñek zenbat maite zuen bere amona, eta zenbat minduko zuen bera galtzeak.

Elkarri begira geratu ziren une batez, hitzik gabe mintzatuz. Peiok emaztearen begi handituei, ezpain lehortuei, erreparatu zien. Ez zuen inoiz horrela ikusi, eta bere ahultasunak, lehenengo egun hartan Mariñe hunkitu zen moduan hunkitu zuen Peio oraingoan. Eta halaxe izan zen, lehenengo eguna bezala, berriro hasi izan balira bezala.

Malko gazitan urtu ziren elkarren besoetan, urte guzti haietan gordetako gorroto, tristura eta haserrea askatuz. Supituki, Peioaren bularretik burua altxa eta irri bizi bat eskaini zion begiez Mariñek.

Peioren begiak ere piztu egin ziren garai batean hainbeste zorutzen zuen keinu hura oroituaz, eta gau osoan iraun zuten izarapeko jolasek eman zioten segida begirada hari.

Goizaldean eguzkia oraindik ateratzeke zenean, samurkiro begiratzen zion Peiok emazteari. Bai, azkenean esan zezakeen: maite zuen. Ez zuen gesäl usainik edukiko, ez eta itsasoak bezainbeste eskainiko, baina maitagarria zen. Ulertu zuen itsasoa bezainbeste ez bazen ere, maita zezakeela, eta hainbeste jasan, hainbeste eman zuen beragatik...

– Beti egonen zara ene baitako txoko batean jasorik, xuxurlatu zion belarrira, eta hasperen bat izan zuen erantzuntzat: lo zegoen.

Sei urte atzera, Mariñe maitemindu zuen begirada berbera soinean zuela atera zen Peio etxetik, momentu bakar batean ere atzera begiratu gabe.

* * *

Arroketan zutik, itsaso harroari desafiatuz, irudi beltz bat atzematen zen. Mariñe zen, ilea estaltzen zion zengoetarainoko toga beltz bat soinean zuelarik, senarraren doluaren adierazgarri.

Haren heriotzaren berri eman ziotenean, hasieratik jakin zuen ez zela istripu bat izan, Peiok, azkenean, bere desio gazi-gozoa bete zuela baizik. Ez zen eguraldi harekin arrantza egitera irteteko bezain kirtena, eta ate atzean kainabera aurkitu zuenean bere susmoak baieztatu ziren: bere benetakoa maiteñoaren besoetan erori zen azkenean.

Triste bazegoen ere, aitortu beharra zuen nola-baiteko lasaitasuna jabetu zela bere barrenaz. Bazekien lehenago edo beranduago gertatuko zela, ez baitzuen zereginik itsasoaren aurka, hain zen boteretsua, hain zen ederra...

Pausu batzuk eman zituen aurrerantz, ipar haize gogorrek oreka eragotzi arren gorputza irmo mantenduz, eta senarra zenaren kainabera zaharra jaurtiki zuen uhinen aparren artera. Zertarako kontatu gertatutakoa jendeari? Azken finean egia ulergaitza zen, subreala, eta gezurra, berriz, logikoena.

Berriz ere lehengo tokira atzeratu zen eta une hartantxe, itsasoa baretzen zihon momentuan, ortzian arrastiriko azken eguzki-printzak ikusten ziren unean, etorri zitzaion gogora. Irribarre malenkoliatsu batez, aurreko egunean entzun izan balitu bezain argi, oroitu zituen bere amona zenak esandako hitzak: *Urak dakarrena, urak daroa.*